


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Horrela egiten dute emakumeek amets

Kressmann Taylor

ALBERDANIA

94 orrialde

15,50 euro

Ametsek porrot egiten dutenean

AEBetan, 1903an jaio zen Katherine Kressmann, literatur munduan Kressmann Taylor izenarekin ezagutzera emango zen idazlea. Publizista izateaz gainera, hainbat kazetatan idatzi zuen. 1938an, *Ez-zaguna helbide honetan* bere lanik sonatuena kaleratu zuen. Liburu honetan berriz, hainbat aldizkaritan agertutako bost narrazio bildu eta euskaratu ditu Joxan Elosegik. Alberdania argitaletxearen eskutik plazaratu da *Horrela egiten dute emakumeek amets*. Bost ipuin horietatik lauk emakumeak dituzte protagonistak, eta azkenekoak gizon bat. *Harriet, Anna, Anderea, Elli Pearl* eta *Rupe Gittle* dira ipuinen izenak.

Guztietan azpimarratzen da adin ezberdinetako pertsonen dituzten ametsen era bateko edo besteko porrota, eta giza-kien arteko harremanen ankerkeria. ■



Hizkuntza-zuzenbidea. Testu bilduma euskaraz

Batzuen artean

EUSKALTZAINDIA

156 orrialde

12 euro

Hizkuntza-zuzenbideko euskarazko testuen bilduma

Euskaltzaindiak denbora darama lanean eta gogoeta egiten euskarak Euskal Herritik kanpo duen lekua aztertu nahian. Mundu zabaletik euskararen mesederako zer baliabide berri datozen arakatzeko balio du lan horrek. Ildo horri jarraituz plazaratu du hizkuntza-zuzenbideko testu bilduma hau. Euskarari eragiten dion corpus juridikoa biltzea izan da liburu honen xedea, han-hemenka eta hainbat hizkuntzatan sakabanatuta dauden erreferentzia juridiko guztiak euskaldunen eskura jartzeko. 1945ean onartutako Nazio Batuen Gutunetik hasita, nazioarteko erakundeek, Europar Batasunak, Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak onartu eta euskarari eragin diezaioketen legeen bilduma da liburuak. ■

Gertaera hutsal baten 99 bariazio

Igela argitaletxeak 2006an plazaratu zuen Raymond Quenauren *Estilo-ariketak* liburua euskaraz eta frantsesez. Xabier Olarrak egindako euskarazko itzulpena berrargitaratu dute orain, frantsesezko testurik gabe. Autobus bateko gertaera hutsal bat 99 era ezberdinetan kontatzeko idazle frantziarrak eginiko ahalegina jasotzen du liburuak: bidaiaari barregarri samar batek aldamenen daukan beste bidaiaari batekin duen istilua eta handik gutxira jasango duen gaitzespena da liburuaren muina; hiru literatur genero nagusietan kontatua dago, era epikoan, lirikoan eta dramatikoan. Bestalde, Igelak kaleratutako berrargitalpenarekin batera Mireia Gabilondok, Carlos Zabalak, Eneko Olasagastik, Ramon Agirrek eta Olatz Beobidek eginiko testuen irakurketa jasotzen duen CDa dator. ■



Estilo-ariketak Raymond Queneau

IGELA

158 orrialde

15 euro

CDa 5 euro

Espazioak aldatzeko erak

Artelekuk euskaraz eta gaztelaniaz plazaratzen duen *Zehar* aldizkariak honako gaiak dakartza 62. zenbakian: Maider Zilbetik Saskia Sassen soziologoari globalizazioaren inguruan egin dion elkarrizketa; Londresko Institute of Contemporary Arts-ek antolatutako *Memorial to Irak War* egitasmorako Tony Chakar-ek idatzitako *Gerra Monumentu ezinezkoa: Hilotz bat tirokatzea hilketak jotzen al da?* (sic); espazioaren irudikapenaren inguruan Carme Nogueirak osatutako *Zenbait leku-mapa*; Apolonia Sustersic-ek idatzitako *Hondamendia berrantolatzen*; Bilboko Arte Ederretako Museoa *Kiss Kiss Bang, 45 años de arte y feminismo* lemapean antolatutako erakusketaz M^a Jose Belbel Bullejosek eskaintzen duen *Spivak v-z idazten da lana* eta *Chúpame el código 2.0. Ciberfeminismo en tiempos de guerra* artikulua. ■



Zehar

Batzuen artean

ARTELEKU,
GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

144 orrialde



Bai baina ez baina bai

Pasqual Alapont

ELKAR

266 orrialde

15,95 euro

Gazteei zuzendutako nobela umoretsua

Berrehundik gora orrialde ditu Pasqual Alapont idazleak katalanez idatzi zuen nobela honek. Elkar argitaletxeak Antton Olanoren itzulpenari esker euskaraz kaleratu du *Bai baina ez baina bai*. Irakurle gazteenek ez zaie damutuko berau irakurtzea, hain da umoretsua. Hamalau koma sei urteko mutila da kontalaria. Bere ikasgelakoekin ikasturte-amaierako bidaia egitera doa Mallorcara. Non dago arazoa? Bere bihotzeko azukre koxkorra nola erakarri, eta behin hura lortuta nola jokatu: lehen neska-laguna du, berak ordaindu behar ote dizkio fakturak? Maizago garbitu behar ote

ditu hortzak? Edo, ur sakonetan sartuta, zer ikusteko du zakilaren luzerak homosexuala izatearekin? ■

Ernio-Pagoeta-Izarraitz inguruak oinez egiteko laguntza


Ernio, Mendikute, Gazume, Pagoeta, Erlo... tontorrek oso ezagunak dira euskal mendizaleen artean. Baina beharbada ez dio inork hainbeste arreta jartzen inguruan dituzten ibar eta muinoei. Han daude ezin ederragoak diren Aiztondo, Errezil, Lastur, Kilimon edo Goltzibar bezalako haranak, esate baterako. Bada, horietara tipi-tapa iristeko 35 era ezberdin eskaini dizkigute Miguel Angulok

Ernio-Izarraitz

Miguel Angulo

SUA

104 orrialde / 10 euro



eta Kike Zinku-negik Sua argitaletxearen bidez kaleratu duten *Ernio, Pagoeta Izarraitz*. *Excursiones, ascensiones, travesías* gida-liburuan. ■

JON ARRETXE

«Gozatu egiten dut generoz eta estiloz aldatzean»

Zergatik kokatu zenuen Parisen *Morto vivace*?

Nik baneukan buruan nobela poliziako klasiko bat idaztea. Dudatan nengoen non kokatu, Lisboan edo Parisen. Baina aspaldi honetan, arrazoi ezberdinengatik, patuak Parisera eraman nau. Hara hor han kokatzearen arrazoia. Frantziako festa nazionalaren egunean Biarritzeko opera-koru bat doa hara. Hori da nobelaren hasiera. Sena ibaian dabilta korukoak *bateau-mouche* batean kantari, haietako kide baten gorpu txikitua agertzen denean ur gainean. Hor abiatzen da misterioa.

Kasua argitzea bi detektibe aukeratuko dituzte.

Martinez eta Perrot dira. Nahiz eta biak frantziarrak izan, bata magrebtarra da, eta bestea beltza, jatorriz afrikarra. Frantzian –Parisen batez ere– oso normala da hori: Afrikar jatorriko jendea pilatzen da *banlieue* esaten zaien auzo pobreetan, eta horietara eramango gaitu nobelak baita, batez ere Pigalle aldeira –Moulin Rouge, etorkinak eta prostituzioa gehien mugitzen den ingurura–, han bizi eta lan egiten baitute detektibe horiek.

Kritika sozialak ere badu lekurik lanean, ez da hala?

Ohiko osagarria izaten da nobela beltzetan, eta hemen ere badago pixkatxo bat.

Asko kostatu al zaizu nobela hau idaztea?

Gozatu egiten dut generoz eta estiloz aldatzean. Dokumentazio lana egin behar izan dut, jakina, eta laguntza ere eduki dut: Parisen bizi den Iparraldeko andre euskaldun batek agertu zidan zelan funtzionatzen duen administrazioak han, norbait hilez gero nora eramaten duten eta horrelakoak; eta hemengo mediku batzuek, autopsien gaineko kontuak.



JUAN CARLOS RUIZ / A.P.

Benetako nobela beltza, Jon Arretxeren eskutik

Bidaietako kronikak, berak eginiko bidaia horietan oinarritutako fikzioak, liburu umoretsuak –hau da, *Ostegunak* eta segidan idatzi zituen *Ostiralak* eta *Larunbatak*, zein Artabe eta Etxabe gisako detektibe barregarri samar batzuen munduan murgildu gintuzten *Manila konexioa* eta *Kleopatra* nobelak– eta beldurrezko lanak sortu dituelako zen orain arte ezaguna Jon Arretxe euskal liburu munduan. Baina beste alor bat lantzearekin dio idazleak *Morto vivace* nobela beltzean. Zehaztasun handiz deskribatutako Parisen kokatu du narrazioa. Biarritzeko opera-koru bateko partaide baten gorpu txikitua aurkituko dute Sena ibaian, eta hilketa horren gorabeherak argitzen diren bitartean, Frantziako hiriburuak eskaintzen dituen kontrasteetan jarri du Jon Arretxek bereziki arreta:



Morto vivace

Jon Arretxe

ELKAR

112 orrialde

11,75 euro

alde batetik, Frantziako festa nazionala ospatzen alai asko dabilen jendea agertzen da, eta Biarritzeko opera-korua entzutera Sena ibaiko ontzi batera bildu direnen dotoretasuna; eta beste aldetik, Parisko auzo baztertuenetan bizi den giroa: gehiegi integratu gabeko jendea, gaizkileak, prostitutak, eta mundu horretan murgiltzea oso gustuko duten polizia gizonak. ■

egileari galdezka